

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

653

EBAZPENA, 2026ko otsailaren 3koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana.

Europako araudiarekin bat etorritz, estatu kideek zaindu behar dute pentsuei eta elikagaiei buruzko legeria eta animalien osasunari eta ongizateari buruzko araudia betetzen dela, eta jarraipena egin eta egiaztatu behar dute enpresek arau horietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela ekoizpenaren, eraldaketaren eta banaketaren etapa guztietan. Horretarako, kontrol ofizialak antolatuta behar dituzte.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko (EB) 2017/625 Erregelamenduaren xedea da kontrol ofizialetan gorde behar diren arau orokorrak ezartzea, arauak betetzen direla ziurtatzeko; izan ere, erregelamendu hori elikagaien eta pentsuen legedia eta animalien osasunari eta ongizateari, landareen osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak aplikatzen direla bermatzeko egiten diren kontrolei eta jarduera ofizialei buruzkoa da.

Espainiako estatuan, elikadura-katearen kontrol ofizialeko planen diseinua eta aplikazioa, funtsean, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legean araututa dago. Euskal Autonomia Erkidegoan, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legearen 101.2 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan ekoitzi edo merkaturatutako nekazaritza- eta elikagai-produktuak kontrolatzeko planak ezarriko dituzte euskal administrazio publikoek, arriskuen aurrean jarduteko eta erantzuteko koordinazio-printzipioei jarraituz.

Aurrekoa aplikatuz, eta bat etorritz Elikadura-katea Kontrolatzeko Plan Nazionalaren jarraibide orokorrekin, eta harekin koordinatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onartu zen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko irailaren 16ko Aginduaren bidez.

Agindu horren hirugarren ebatziak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana eguneratu edo aldatu ahal izango dela Eusko Jaurlaritzan nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorrean eskumena duen zuzendaritzako titularren ebazpen baten bidez, Koordinazio Talde Horizontalak proposatuta, eta eguneratze edo aldaketa horiek Eusko Jaurlaritzan nekazaritzaren eta elikaduraren alorrean eskumena duen sailaren webgunean argitaratu beharko direla.

Horrela, hautemandako beharrak ikusita, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2021eko apirilaren 14ko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez eguneratu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana.

Hala ere, Plana Koordinatzeko Horizontal Taldeak plan horretan zenbait egokitzapen eta aldaketa egiteko beharra hauteman du, eta plana eguneratzea proposatu du, egokitzapen eta aldaketa horiek gehituta. Beraz, 2016ko irailaren 16ko Aginduan xedatutakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana eguneratzen da ebazpen honen bidez. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana eguneratzea, eta Eusko Jaurlaritzan nekazaritzaren eta elikagaien arloko sail eskudunaren webgunean argitaratzea:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/nekazaritza-elikagaien-katearen-kontrol-ofizialerako-plana/>

Bigarrena.— Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote interesdunek Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.— Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 3a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
ONEKA ZABALLA GONZALEZ.